**ALEJANDRO MARTIN, Baztan Auzolanean**

**-Aroztegiako proiektua Udalaz Gaindiko Plan Sektorial bezala tramitatu eta Udalari berea den konpetentzia kentzea zuzena iruditzen zaizu? Zergatik?**

Ez zait ez zuzena eta ez okerra iruditzen ere. Errekurtso legala da, eta norbanakoari edo administrazioari bere interesak defendatzeko beharrezkoa iruditzen bazaio, bertara jotzen du eta kitto.

**-Zer da zuretako garapen jasangarria? Garapen eredu honen aldekoa al zara? Aroztegiako proiektu urbanistikoa garapen jasangarri eredu baten barnean sar daitekeela uste duzu?**

a) Gizakiak planetarendako minbizia direla kontutan hartuta (kontrolik gabe hazten dira eta babesten dien organismoa hil dezakete), bertze inora joateko ahalmenik ez dugula eta gure burua hiltzeko asmorik ez dugulako, bizirik jarraitzeko ahaleginak egin behar ditugula argi dago. Beraz, ahalegin hori garapen jasangarria da.
b) Ez dakit zein garapenari buruz ari zaren. Garapen jasangarriaz ari bazara: aitzinetik errandakoa kontutan hartuta, argi dago nire aldetik ahalegin guztiak eginen ditudala laguntzeko. Baina kontuz, **lagundu,** argi erraten dut. Ez inposatu edozein arrazoi dela eta, batzuen pentsamoldeari egokitutakoak diren interesei lotuta badaude.
c) Hemen aurkezten dugun dokumentuaren araberan. B.G.Elkarteak (B.Aren sorlekua), 2014an proiektua aztertu zuen eta arrazoiak bertan argitzen dira *(Baztan Auzolanean taldeak aurkeztutako dokumentua beherago irakurgai)*.

**-Lekaroztarrak 2009. urtean lurren birkalifikazioren kontra agertu ziren eta berdin, proiektu urbanistikoaren kontra agertu dira ordutik egin diren batzarreetan. Zein da Lekaroztarren, hau da, proiektu honen eragin zuzena jasango duten herritarren hitza ez errespetatzearen arrazoia?**

Zorionez, bakoitzak gure iritziak argi utz ditzakegun gizartean bizi gara. Baliabide ezberdinak ditugu gure pentsamoldea askatasunean adierazteko. Hau dela eta, 2015eko Udal Hauteskundeetan, lekaroztarrek Aroztegia proiektuaren alde agertzen ziren talde politikoei eman zieten baiezkoa. Edo pentsamolde berezi baten aldekoak ez diren adierazpenak baliogabekotzat jo beharko genituzke?

**-Baztango herritarrak herri galdeketa bidez proiektuaren aurka agertuko balira, erabaki hau babestu eta defendatuko al zenuke?**

Kargu politikoak baztandar gizartearen bozeramaileak eta ordezkariak garela kontutan hartuz, gizarte baztandarrak informazio zuzena eta osoa izanik eta ez alde bakarrekoa, zuzenbidea- legalitatea errespetatzen badu, eta inposaketa eta hertsadurarik gabe, askatasunez adierazten duena errespetatu egin behar da, zalantzarik gabe. Baina hau ez da

berria, ezta arraroa ere.

**-Baztan Auzolanek beharrezkoa ikusten al du Baztanen 800 etxebizitza huts daudenean, 340 biztanle dituen Lekaroz herrian, 238 etxebizitza berri eraikitzea? Zergatik? Bagordin 238 etxebizitza berri eraikitzea gustatuko al litzaizuke?**

a) Baztan Auzolanek alderdi urbanistikoan ez du deus erraterik: ez delako, eta ezin delako izan ekimen horretan aktore.
b) Eraikuntzen kopuruari buruz, eraikiko diren ala ez eta zein epetan eginen diren ez dut daturik, ezta ideiarik ere. Hala ere, etxeen eraikuntzak dakarren kostua kontutan hartuta, jakina da baten bat eraikiko balitz norbaitek aitzinetik eskatutakoa izanen litzatekeela. Inork ez du dirua botatzeko asmoarekin proiektu bat martxan jartzen. Eta momentuan ez dago horrelakorik eta ikuspegia antzekoa da aitzinera begiratuz ere.
c) Baztanen hutsik dauden 800 etxebizitza hutsek jabea daukate. Egia erranez, ez dut nire burua gai ikusten jabe horiei errateko zer egin behar duten beren ondasunekin edota nola kudeatu behar dituzten.
d) Duela urte batzuk, nire eskubideetaz baliatuz, eraikitzeko baimena eskatu nuen Bagordin. Lortutakoan, familia bakarreko etxebizitza eraiki nuen eta bertan bizi naiz. Beraz, bidegabekeria litzateke ni orain trabak eta oztopoak jartzen hastea bertze etxebizitzak eraikitzeko asmoa duen norbaiti. Jakinik aitzinetik eraikitzeko baimenak araudietan oinarritutako irizpideekin ematen direla.

**-Nola baloratzen duzu PSISaren ondorioz zenbait lekaroztarrei beren lur pribatuak eta baztandar guztiei gure herri lurrak kendu edo espropiatzea enpresa partikular baten proiektu urbanistikoa gauzatu ahal izateko?**

Edozein proiektu urbanistiko baloratuko nukeen moduan. Edozein motatakoa izanda ere (*banaketa eremua, exekuzio unitatea* edo edozein bertze prozedura urbanistiko mota), Nafarroako edozein herritan etxebizitzak eraikitzeko beharrezkoak diren irizpideekin.

**-Proiektu honek onurak bertzerik ez dituenez, eta lana ekarriko duenez, zenbat Aroztegia egiteko prest egonen zinatekete? Lurrak soberan ditu Baztanek herri bakoitzeko bana egiteko, ezta?**

Bai proiektua eta bai darabilen diru kopurua ere pribatua denez, merkatua bera arduratuko da tankera honetako proiektuak eta bertzelakoak erregulatzeaz. Beraz, Baztanen lanpostuak eta baliabideak sortzen baditu, arau guztiak betetzen baditu eta bideragarria izan daitekeela adierazten badu, gu ados gaude.

**-Zeintzuk dira Aroztegia proiektua egiteak dakartzan onurak eta kalteak?**

B.G.Elkarteak egindako azterketara zuzenduko naiz berriz.

**-Inguru horretan etxebizitza behar erreala zein den aztertu da? Etxeak egin ondotik, hutsik geratzeko arriskurik ez al dago?**

Bosgarren erantzunean erran bezala, eraikuntzak daramatzan gastuak kontutan izanik, eta inork ez duenez bere dirua botatzeko asmorik, berriz erranen dut etxebizitzaren bat eraikitzekotan, aitzinetik eskatutakoa izanen litzatekeela. Promotorea ongi arduratuko da etxe hutsik ez egoteaz, eta behin salduta, zuk erosten baduzu, jabea zarenez, askatasun osoa daukazu zure etxearekin nahi duzuna egiteko. Inork erran gabe zure jabetzarekin zer egin behar duzun.

| | |
|---|---|
| **Referencia Proyecto (Cod. Y denominación)** | **PD140530-Área turística, Hotelera, Deportiva y residencial del entorno del Palacio de Arozteguía** |
| **Promotor** | **Palacio de Aroztegía, S.L.** |
| **Tipo Actividad Inducida** | Actividad Turístico-Deportiva |

## Legislación y Normativa que le afecta y su cumplimiento

| Ley/Norma | Cumplimiento | Observ. |
|---|---|---|
| Ley Foral 35/2002, de 20 de diciembre, Art. 42 y 43 | | |
| Ley Foral 4/2005, de 22 de marzo, de Intervención para la Protección Ambiental. Artículos 31, 32 y 33 | | |
| Plan de Ordenación Territorial: POT 2 (Navarra Atlántica), Aprobado definitivamente por el Decreto Foral 44/2001 | | |
| Plan Municipal de Baztan (BON de 1 de abril de 2003), y Modificación Puntual aprobada por Orden Foral 162/2010, de la Consejería de Vivienda, de 13 de Septiembre de 2010 | | |
| Cualquier Normativa que sea de aplicación | | |
| | | |

## Factores socioeconómicos

| ¿Explota recursos de Baztan y los procesa en Baztan (si/no)? Detalle | Si |
|---|---|
| Recupera y rehabilita un antiguo palacio (Palacio de Aroztegia) para la actividad hostelera y de restauración, de acuerdo a la Normativa. | |
| Utiliza para la actividad deportiva, golf, (motor del Proyecto) espacios de alto valor natural y paisajístico, con afección mínima. Poniendo en valor, para la actividad turística, unos espacios, como se ha dicho anteriormente, de alto valor natural y paisajístico y pertenecientes a la sociedad PALACIO DE AROZTEGUIA, S.L. | |
| Con los recursos que dispone posibilita una oferta integral que aglutina las actividades deportivas, turísticas, gastronómicas; originando un flujo, no estacional, de poder adquisitivo medio-alto., Este flujo posibilitaría, en un futuro, la segunda residencia; razón por la que se prevé actividad inmobiliaria de baja densidad, en la medida que se vaya produciendo la demanda | |
| | |

| ¿Procesa, recursos externos, en Baztan (si/no) Detalle: | Si |
|---|---|
| Prevé la utilización de los sistemas e infraestructuras de comunicación de zonas vecinas a Baztan (resto de Navarra, Pamplona, Fuenterrabía, Biarritz, etc.), principalmente aeroportuarias y de carreteras para la comunicación dentro de su mercado potencial; que previsiblemente sea mundial. | |
| La opinión de BGE es que puede ser un potente factor de generación de sinergias; tanto con iniciativas residentes en Baztan, como iniciativas de otras zonas relativamente cercanas. | |
| | |

| ¿Genera puestos de trabajo en Baztan? ¿Cuántos? | 100 puestos |
|---|---|
| Discapacitados: **A evaluar en fase posterior, con mayor desarrollo de la iniciativa** | ¿?? |
| Mujeres: **A evaluar en fase posterior, con mayor desarrollo de la iniciativa** | ¿?? |
| Hombres: **A evaluar en fase posterior, con mayor desarrollo de la iniciativa** | ¿?? |
| | |

| ¿Cuenta con la mano de obra cualificada de Baztan? ¿Tipo de cualificación y formación?: Si | | |
|---|---|---|
| Prevé mano de obra, cualificada, en hostelería y restauración. Prevé actividad formativa. | **A concretar** | |
| Prevé mano de obra, cualificada, en jardinería y mantenimiento de campos de golf. Prevé iniciativa de actividad formativa, en Baztan; concretamente en el Campus de Lekaroz | **A concretar** | |

| ¿Genera actividad y puestos de trabajo indirectos? (Si/No) | Si |
|---|---|
| El flujo de personas que se prevé genere el Proyecto influirá directamente en el comercio de la zona, así como en los servicios de restauración | |
| Actuará sobre pequeñas empresas de diferentes oficios, en mantenimiento de instalaciones e infraestructuras. | |
| Influirá en el transporte de personas, tanto dentro de Baztan, como en zonas relativamente cercanas; pongamos un radio de 150 Km. | |
| Puede ser un factor de ayuda en diversas actividades turísticas, implantadas o futuras, en Baztan | |
| Se puede beneficiar y a la vez potenciar actividades relacionadas con el cine | |
| Contribuirá especialmente a la marca Baztan | |

| ¿Existen factores, objetivos, que induzcan al rechazo social? - ¿Qué factores? |
|---|
| Aunque existe un movimiento contrario a este Proyecto; la opinión de BGE considera que no hay razones objetivas para generar rechazo, ya que se recupera y rehabilita patrimonio, no hay afecciones medioambientales, el recurso principal de este Proyecto es el alto valor naturalístico y paisajístico, primero de la propiedad del Palacio de Aroztegia y después del resto de Baztan y zonas colindantes (Bidasoa, Malda Erreka, Ultzama, Iparralde), genera actividad y puestos de trabajo e influye positivamente en el comercio, hostelería, oficios, actividad educativa, existentes; además de posibilitar futuras iniciativas. |
| BGE considera el proyecto de Palacio e Aroztegia como un buen Proyecto; merecedor de todo su apoyo. |
| |
| |

| ¿Viabilidad del negocio? (% probabilidad supervivencia) | |
|---|---|
| Aunque el Proyecto presentado es bonito, ambicioso y muy atractivo para el Baztan; no se dispone de datos suficientes para evaluar este apartado, en este momento. Al igual que otros apartados se evaluarán en una fase posterior, con un mayor recorrido del camino del Proyecto. | |
| | |
| | |